

# LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2017ko Martxoan \_ **16.** zenbakia

**2** Aurrez Aurre  
Periko eta  
Ainhoa Garmendia

**4** Inbertsio programa

**5** Argazki bilketa

**6** Etxezarreta

**7** Herri galdeketa

**8** Patxi Ezkiaga

**9** LegoReggae

**10** Errezeta

**11** Agenda

**12** Argazki zaharra



**Argazkiak bilduz,  
memoria bizitu**

# AURREZ AURRE

**Elkarrizketatzailea:**

**PERIKO  
GARMENDIA**



**Elkarrizketatua:**

**AINHOA  
GARMENDIA**

*Legorreta, Ordizia, Donostia, Madril, Viena,  
Marseilla, Leipzig, Lausana, Tolosa, Londres, Berlin,  
Paris, Frankfurt, Corea, Colombia... eta Donostia.*

*Geltoki ugaritan egin du geldialdia*

*Ainhoa Garmendia soprano legorretarrak.*

*Munduan barrena opera entzutetsuetan kantatu eta gero,  
Euskal Herrian opera zabaltzeko asmoz, 2014an proiektu berri  
bat jarri zuen abian Donostian, Opus Lirica konpainia eratuta.*

*Gaur egun, beraz, soprano eta enpresaria da Garmendia,  
eta han eta hemen segitzen du, etxean eta nazioartean,  
ohi bezain kementsu.*

**Kantagintzari eman diozu bizia, Ainhoa, Oroith abesbatzan aurreneko pausoak emanda, baina, aurretik, akordeoi eta piano ikasketak ere egin zenituen. Bolada batean, gainera, akordeoi irakasle izan zinen Legorretan. Zer oroitzen dituzu?**

Guztia Legorretan hasi zen, Pello Ramirezekin. Solfeoa eta akordeoia ikasten hasi eta Pellok behin baino gehiagotan esan ondoren ahots polita nuela, Oroith abesbatzan hasi nintzen abesten. Deskubrimendu bat izan zen niretzat abestea. Segituan nabaritu nuen hori zela nik bizitzan egin nahi nuena: musika, eta batez ere abestu. Zuri eta amari noizbait esan dizuedan bezala, inoiz ez dizuet nahikoa eskertuko musikara dedikatu ahal izateko aukera eman izana.

**Hasierak ez dira errazak izaten, baina bistan da gogorlan eginez gero lorpenak handiak izan daitezkeela.**

Bizitzan ezer ez da erraza, baina borrokatu egin behar da ametsak aurrera ateratzeko. Zuek erakutsi didazue horretan, eta beti eman didazue indarra borrokatzeko.

**Opera asko ezagutu dituzu. Zein duzu gogokoena?**

Momentu honetan, La Traviata da gusturen abesten dudana, baina bat bakarrik esatea oso zaila da. La bohème, Las bodas de Fígaro... asko daude.

**Hainbeste herrialdetan lan eginda eta hainbeste hizkuntzatan abestuta, ikasi ere egin dituzu. Aberastasan handia izango da hainbeste hizkuntza jakitea.**



Niri hizkuntzak asko gustatzen zaizkit. Askotan pentsatu dut abestuko ez banu hizkuntzekin zerbait egitea ere gustatuko litzaidakeela. Sei hizkuntza hitz egiten ditut, eta, egia esan, asko disfrutatzen dut jendea ezagutzean ingelesez hitz egin ordez beraien hizkuntzetan hitz egin ahal izatearekin.

**Proiektu berri batekin zabilta azkenaldian: Opus Lirica. Euskal Herrian badago operarako zaletasunik?**

Bai, zaletasun izugarria dagoela ikusten ari gara. Sei opera egin ditugu jada, eta bai *Traviata*-n eta bai *Carmen*-en, Kursaal bete dugu bi egunetan: 3.200 pertsona dira. Oso kontentu nago Opus Liricarekin. Asko ari naiz ikasten zentzu guztietan. Orain, laguntza pixka bat gehiago behar dugu instituzioetatik, baina dena aurrera doa.

**Legorretak Ordiziatik bereizi zeneko 400. urteurrena ospatu zuenean, herrian kantatu zenuen, etxean. Zer sentitu zenuen? Pentsatzen dut berezia izango zela.**

Bai, oso berezia izan zen. 17 urte nituela abestu nuen nire lehendabiziko kontzertuetako bat, leku berean, Legorretako elizan, eta oraindik gogoan nuen kontzertu hura. Familia, lagunak eta ezagunak bertan zineten oraingo honetan ere, eta oso hunkigarria izan zen kontzertu hori...

## LABUR - LABUR

Bizitzeko toki bat?  
Donostia.

Abeslari bat?  
Anna Netrebko.

Opera ez den beste zaletasunik?  
Tenisa, irakurtzea, bizikleta, natura.

Zer gustatzen zaizu jatea etxera etortzen zarenean?  
Amaren entsaladilla eta kroketak.

Eta kanpoan?  
Glutenik gabe, denetik.



# 2017rako PROGRAMA ETA INBERTSIOAK

Otsaileko osoko bilkuran onartu ziren 2017rako aurrekontuak, eta 2016ko likidazioa ere egina dago. Horrekin guztiarekin finantzatuko da 2017rako programa. Ohiko oinarri eutsiko zaie, ongizatea, berdintasuna, euskara, kultura... Ongizatean, ohiko laguntzak emango dira, jakina, eta bestelako programak ere bultzatuko dira: ikastaroak, Ttipi Ttapa, garapen bidean diren herrialdeetarako laguntza, elkartasun azoka... Berdintasun arloan, lantaldeak garatzen duen lanaz eta antolatzen dituen ekintzez gain, diputazioaren Berdinbidean programan bideari ekin diogu, udaleko gai transbertsal bat izan dadin. Euskarari dagokionez, iaz Ueman sartuta, harekin ari gara lanean, udal barruan, merkataritzan eta beste. Eta, kulturari lotuta, Ipuiaren Ordua izango da udaberri eta udazkenean, kon-tzertuak tarteka antzokian, antzezlanen bat ere bai... Hirigintza eta herrigintza arloetan, hiru lan ildo nagusi jorr-atuko dira aurten: mendi ibilbideak, etxe hutsak eta trafikoa. Iaz bezala, uda honetan ere pare bat langile kontratatuko dira, aparteko lanak egiteko.

Horrez gain, badira aurten egingo diren inbertsio batzuk. Lehenik, hondakinak biltzeko sistema aldatuko da, eta 96.000 euro daude horretarako gordeta. Bigarrenik, argindarraren efizientzia energetikoa lortzeko bidean, hasitako bideari segituko zaio, eta argindar aldatetaren bigarren fasea garatuko da –hiru fase izango ditu, eta datorren urtean izango da hirugarrena–. Hirugarrenik, herri bideen asfaltatze lanekin segituz, Urdaneta auzorako bidea berrituko da, eta, bide batez, Bidegain atzean ere egingo dira lanak, luizi baten ondorioz lurra mugituta baitago. Laugarrenik, udaletxeko kable sarea berrituko da, aspaldikoa izanik arazo handiak ematen ari baita. Bosgarrenik, telefono mugikorretarako aplikazio bat garatzen ari gara, eta laster izango dugu eskura, herritarrekiko informazio trukea aberatsagoa eta errazagoa izan dadin. Seigarrenik, frontoiko sabaia berritzeko proiektua dugu esku artean, itoginak baitaude.

Argiteriaren aldatetarako, bi laguntza izango dira: diputazioarena bata, eta Energiaren Euskal Erakundearena bestea –iaz ere, lehen faserako, bi laguntza horiek izan ziren–. Urdanetako bidea asfaltatzeko, diputazioari eskatua zaio diru laguntza, LandaGipuzkoa+ programaren barruan. Telefonorako aplikazioa garatzeko ere diputazioari eskatuko diogu laguntza, Berrikuntza eta teknologia berriak atalean. Eta frontoiko sabaia konpontzeko ere diputazioari eskatua diogu laguntza, kirol azpiegiturak berritzeko egin zuen deialdian.

## PROGRAMAS E INVERSIONES DEL 2017

Los presupuestos para el año 2017 se aprobaron en el Pleno del mes de febrero; la liquidación del 2016 también se ha realizado por lo que con todo ello se podrá financiar el programa planteado para este año en curso. Así pues, en cada área se respaldarán las ayudas habituales y también se impulsarán algunas iniciativas novedosas.

A continuación se recogen algunas inversiones que se plantean para este ejercicio:

- Se cambiará el sistema de recogida de residuos: se ha reservado una partida de 96.000 euros.
- Cambio del sistema eléctrico, con el objetivo de conseguir la mayor eficiencia energética (segunda fase). En este caso, se cuenta con ayudas económicas tanto de la Diputación como del Ente Vasco de Energía.
- Reparación del tejado del frontón: se ha solicitado una subvención a la Diputación.
- Asfaltado de los caminos locales; se renovará el camino hacia el barrio Urdaneta; se ha solicitado una subvención a la Diputación (dentro del programa LandaGipuzkoa+) y también se realizarán trabajos en Bidegain reparando daños causados por un desprendimiento.
- Nuevo cableado en el ayuntamiento.
- Pronto se pondrá en marcha una nueva aplicación para teléfonos móviles con el objetivo de mejorar el intercambio de información para con la ciudadanía. También se ha solicitado una subvención a la Diputación.



# ARGAZKI BILKETA

## *Herri baten memoria gordez, herri horren iraupena bermatzen da*

Helburu horrekin, Legorretako Udalak egitasmo bat jarriko du martxan. Bertan, Legorretako argazki zaharren bilketa egingo da. Horretarako, herritarroi laguntza eskatuko zaizue, etxean gordeta daukazuen eta belaunaldiz belaunaldi pasatu diren argazki horiek udalaren esku jar ditzazuen. Argazki horiek herriaren, herritarren, lanbideen eta ohituren bilakaera erakutsiko dute.

XX. mendekoak izango dira argazkiak, Legorretakoak, eta laguntzen duten herritarren artean zozketa egingo da. Argazki bakoitzeko txartel bat emango da, eta sei lote zozketatuko dira.

Epea: egitasmoa apiriletik ekainera egingo da.

Aurkezteko modua: argazki originalak udal txeko bulegoetan aurkeztuko dira. Udal arduradunak agiri bat emango dio emaileari, honako zehaztasun hauekin: argazki kopurua, argazki bakoitzaren xehetasunak eta emailearen datu pertsonalak.

Argazkiaren atzealdean edota aparteko dokumentu batean, argazki horren inguruko datuak adieraziko dira: gutxi gorabeherako data, agertzen diren pertsonen izenak, lekuen kokapena eta interesgarriak izan daitezkeen beste datu batzuk.

Itzultzeko modua: iragarritako epea igarota, eta argazkiak eskaneatu eta digitalizatu bezain laster, emaileari itzuliko zaizkio. Emailearekin telefonoz edota eskatutako beste bitartekoren batez jarriko da harremanetan udala.

Behin argazkiak emanda, udalak argazkiak artxibatze eta zaintzeko beharrezkoak diren bitartekoak jarriko ditu. Argazkiak udalak bideratutako jarduera, argitalpen, erakusketa eta beste ekitaldi batzuetarako erabiliko dira. Udal artxibategian daudenean, herritarrek bilketa osatzen duten argazki guztiak ikusteko aukera izango dute.

### **Recogida de fotografías** **Conservando la memoria de un pueblo, se garantiza su permanencia**

Con ese objetivo, el ayuntamiento de Legorreta pondrá en marcha, desde abril hasta junio, una nueva iniciativa para recoger fotografías antiguas (siglo XX). Para ello, se solicita la ayuda de los legorretarras, para que faciliten al ayuntamiento esas fotos que guardan de generación en generación. Por cada fotografía que se aporte, se entre-

gará una tarjeta, y se sortearán seis lotes. Plazo de entrega: la iniciativa se llevará a cabo de abril a junio.

Las fotos originales se entregarán en las oficinas del ayuntamiento; la responsable entregará un documento donde quede acreditada la entrega: cantidad de fotos entregadas, resumen del contenido y los datos

personales de la persona que ha realizado la entrega. En la parte posterior de la fotografía se especificarán datos, así como fecha orientativa, nombres de los protagonistas...

Una vez digitalizadas, se entregarán las fotos. Para ello se pondrán en contacto mediante teléfono, e-mail u otro medio que haya especificado el interesado.

# ETXEZARRETA PAPER FABRIKAREN IBILBIDEA ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

2015. urtean jakinarazi zen Legorretako Udalak baimena eman ziola Gipuzkoako Diputazioari, eraikinaren jabeari, Etxezarreta paper fabrika eraisteko, hura biziberritzea udalarentzat oso zaila zelako eta irtenbide bat eman behar zitzaiolako –bulego eraikina ez da eraitsiko, hori babestuta baitago–.

2015eko amaieran, ordea, diputazioko Kultur Ondarea Saileko teknikarien txosten bat ezagutu zuen udalak, eraikinak erabat eraistearen aurkako iritzia ematen zuena. Eraikinaren zati batzuk mantentzearen alde egiten zuen: bulego eraikina, galdara, tximinia eta pabiloi nagusia, bereziki.

Hori ikusirik, eta Irati Otamendi arkitektoak eman zuen hitzaldia oinarri hartuta, gogoeta bat egin zen udalean, eta ondorioztatu zen udalari badagokiola, batetik, Etxezarretak duen industria ondarea man-

tentzea, horri balioa ematea, eta, bestetik, eremu horretako industria lurrari eustea eta biziberritzea.

Horregatik, ondare hori salbatzeko ahalginak egiten hastea pentsatu genuen. Hala, 2015eko abenduan, diputaziara jo genuen, moratoria bat eskatzera. Eta 2016. urtean jarraitu genuen lanean, hori lortzeko asmoz: bertako hiru sailekin izan ditugu bilerak, Lurralde Antolamenduarekin, Kultur Ondarearekin eta Ekonomia Sustapenarekin. Tartean, Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zuzendaritzarekin ere bildu ginen. Horretan ari ginela, Goieki Goierriko Garapen Agentziarekin harremanetan jarri ginen, eta bidaide izan gara prozesu honetan. Eskualde ikuspegiko estrategia baten parte kokatu du Etxezarreta, eta hori aurkeztu genuen diputazioan, besteak beste, moratoria hori eskatzeko argudio gisa.

2016ko irailean, diru laguntza lerro bat zabaldu zuen diputazioak: 'Pertsonekin eta lurraldearekin konpromisoa hartu duten enpresak sustatzeko programa'. Horretara aurkeztu zen Goieki, eta %80ko

diru laguntza eman zion, ondorengo proiektua garatzeko: Garapen Jasangarriko Estrategia Integrala (eskualde osorako). Proiektu horrek honako helburu hauek izango ditu: eskualdeko agenteak eta politikak bateratzea, estrategia jasangarri bat diseinatzea eta industria erronkei aurre egitea: hutsik dauden eskualdeko bi eraikin industrial zahar birmoldatzeko estrategia bat garatzea. Ondare izaera duten eraikin industrialak: Beasaingo Olaran eta Legorretako Etxezarreta. Olanarekin formatu txikiko ekimen sozioekonomikoak hartuko lituzke, eta Etxezarretak, berriz, formatu ertaineko jarduera industrialak.

Goieki ekainera bitarte arituko da bere proiektua garatzeko lanean –ordura arteko moratoria emana digu diputazioak–, eta, ekainean, proiektu hori diputazioan aurkeztuko du. Orduan emango du diputazioak behin betiko erantzuna: Etxezarreta eraitsiko duen ala ez. Bitarte horretan, herritarrokin aurkezpen bilera batzuk egingo ditugu, proiektua zertan den azaldu eta xehetasun gehiago emateko.





# HONDAKIN BILKETAREN INGURUKO HERRI GALDEKETA

## Trayectoria de la fábrica de papel Etxezarreta y retos para el futuro:

En 2015, el ayuntamiento autorizó a la Diputación de Guipúzcoa (propietario del edificio) a demoler la fábrica Etxezarreta debido al alto coste que suponía para el ayuntamiento hacerse cargo de su reconstrucción. En cambio, a finales de ese mismo año, el Departamento del Patrimonio Cultural de la Diputación dio a conocer un informe donde se posicionaba contra el derribo total de los edificios. Así pues, se proponía mantener, especialmente: las oficinas, la caldera, la chimenea y el pabellón principal.

Con este informe y la conferencia ofrecida por la arquitecta Irati Otamendi, y, después de un proceso de reflexión, se decidió hacer un esfuerzo para salvaguardar el valor de éste edificio emblemático que conforma nuestro patrimonio local. Así pues, se procedió a solicitar una moratoria y como argumento de la misma se planteó situar a Etxezarreta como punto estratégico en la perspectiva comarcal; para ello, se trabajó conjuntamente con la Agencia Goieki.

En septiembre de 2016, la Diputación ofreció una subvención para fomentar empresas que se comprometan con las personas y con su territorio. Y Goieki presentó el siguiente proyecto: Desarrollar un plan estratégico para modelar dos edificios industriales que están actualmente en desuso: Olaran (Beasain) y Etxezarreta (Legorreta). En esta última se situarían actividades industriales de formato medio.

Goieki seguirá trabajando con el proyecto hasta junio (es cuando caduca la moratoria de la Diputación), y seguidamente se procederá a presentar ese proyecto en la Diputación. Es cuando se conocerá la respuesta definitiva: El derrumbe o no del edificio.

Se explicará con más detalle el proyecto en diferentes reuniones que se llevarán a cabo con los vecinos, próximamente.

Martxoaren 12an, udaleko bi alderdiek adostutako sistemaren alde egin zuten botoa eman zuten herritarren %69,55ek. 611 herritar joan ziren botoa ematera, bozkatzera deituta zeudenen %52, hain zuzen.

Horien artean, 425ek eman zuten baiezko botoa, 182k ezezkoa, eta lau baliogabe izan ziren. Beraz, herriaren hitza bete egingo da, eta aldatu egingo da hondakinak biltzeko sistema.

Horretarako, bi hilabete behintzat beharko dira, eta Sasieta mankomunitatearekin elkarlanean arituko gara lan horretan. Edukiontziak, oro har, lehen zeuden tokietan jarriko dira, eta lur azpikoak ere martxan jarriko dira. Pixoihalen edukiontzia non jarri jakiteko galdeketa bat pasatuko da, nork eta non behar duen jakiteko eta horren arabera kopurua eta kokapena erabakitzeko.

Auzoei dagokienez, etxola batzuk jarriko dira. Geltokiko gunea kendu egingo da, eta orain arte horra joan direnek bere auzoan izango dute hondakinak sailkatzeko tokia. Galdeketa egin aurretik etxolen kokagunearen inguruko proposamena bidali zen etxez etxe, Sasietaen proposamena, hain zuzen, baina orain auzoz auzo egingo ditugu bilerak, kokapen hori egokia den edo beste proposamenik badagoen jakiteko eta horren arabera erabakiak hartzeko.

Lurreko zaborrari ere gertutik erreparatuko diogu, akordioan berariaz jaso baiken hori. Horrez gain, kontzientiazio kanpaina bat ere egingo da.



Argazkia: Goierriko Hitzza

## Referéndum sobre la recogida de residuos

El pasado 12 de marzo, el %69,55 de los/las legorretarras mostraron su acuerdo con el planteamiento acordado por los dos partidos en el ayuntamiento sobre el sistema de recogida de residuos. El resultado fue el siguiente: 425 a favor, 182 en contra, y 4 nulos. Así pues, próximamente (se necesitarán al menos 2 meses) se procederá al cambio de sistema acordado por la mayoría. La mayoría de contenedores se colocarán en el mismo lugar que estaban anteriormente y se activarán de nuevo los subterráneos. Para los contenedores que recogen los pañales se repartirá un cuestionario para poder adecuar y concretar mejor su colocación.

El área de la estación se retirará ya que se pondrán nuevos contenedores en los barrios. Y se colocarán nuevas casetas en algunos barrios. Además se realizarán diferentes reuniones para valorar la colocación de estos y recoger nuevas propuestas.

¡Gracias por participar!

# PATXI EZKIAGAREN 'URRUTIKO LUR HAUEK' LIBURUAREN AURKEZPENA ETA OMENALDIA

***Martxoaren 19an, omenaldi xume bezain ederra eskaini zion herriak Patxi Ezkiaga Lasa Legorretako idazle eta herriko seme kutunari. 'Urrutiko lur hauek' liburua argitaratu du udalak, eta hura aurkeztu ondoren eskaini zioten omenaldia herriko eragileek eta udalak. Poema irakurketa, kantu eta dantza artean, ekitaldi hunkigarria izan zen, oso aberatsa. Hona hemen irudi batzuk, haren erakusle. Mila esker parte hartzaile, laguntzaile eta ikus-entzule guztioi!***

## Patxi Ezkiagaren hitzartzea:

### 2017ko martxoaren 19an

Liburu honen inguruan, ideia batzuk daude; edo, hobeto esanda, liburua ideia batzuen inguruan eraikita dago. Ideia nagusia izango litzateke bihotzak badituela arrazoiak arrazonomendutik haratago daudenak. Gure Juan Mari Irigoien handiak esaten zuen bezala, Lur bat haratago. Horrekin batera esango nuke liburu honetan garbi ikusten dela gure bizitza munduaren etengabeko irakurketa dela. Eta modu diferentetan irakurtzen dugu mundua, gure bizi egoeraren arabera. Eta horiek islatzen saiatu naiz liburuan. Eta garbi baino garbiago ikusten da zer-nolako presentzia daukan heriotza kontzeptuak.

Gure izakiaren barruan holako zulo beltz bat egongo balitz bezala. Gure etsipenak, gure minak, gure gaixotasunak barruan hartzen dituenak; eta, nola hala, nola hala, ba, batzuetan, bizitza, hezurretaraino sartzen zaigun hotza; eta hezurretan hotza sartzen denerako erremedio bakarra dago: erremedio hori itxaropena da: liburu honetan itxaropena Ori bezain emankorra dijoo. Fuerte, indarrez. Konbikzioz, azken batez, irtenbide bakarra dagoela. Eta hori dela. Horregatik, batik bat gure bizitzako momentu onak eta txarrak dantzatu egin beharko liratekeela pentsatzen dut. Bizitza dantzatu, kriskitin eta kriskitin gabe. Suelto edo al agarrau, txikitari Legorretan esaten

zen bezala. Baina pentsamendua dantza-tu. Eta gero konturatuko zarete ere zer-nolako presentzia potentea daukan musikak nire poemagintzan. Izan ere, sinesten dut musika maitasunaren elikadura dela. Elkarrekin doaz. Eta ez dakit zer gehiago esan. Beharbada, liburuan garbi-garbi agertzen da gaztetasunaren irrika. Haur eta gazte gineneko irrika. Eta nire sinesmenik sakonena, badagoela elixir bat, gure barruan elixir bat, gaztetasunaren eternitatea guretzat nahiko lukeena. Edo eternitateak gaztetasuna. Beste modu batean esanda.

Ba, sei ideia horien inguruan eraikita dago liburua. Eta poliki-poliki leitzekoa da, leitu, utzi, leitu, utzi; horrela, poliki-poliki. Legorretari eskainia da; izan ere, nire mundua, nire sei ideia nagusi hauen mundua Legorretan sortua da, Legorretan hazia, eta Legorretan datza momentu honetan bertan. Ez dakizue ze ilusio egin didan; urduritasun ikaragarria sortu du nigan ekintza honek; hau diferentea da. Ohituta nago irratan eta telebistan, baina hau, hau diferentea da. Honek barrura jo dit, eta sentitzen dut harro nagoela legorretarra izateaz, eta herriari zor diodala eman diodana baino askoz gehiago. Eta, bueno, hor gelditzen gara. Zelai, hor gelditzen gara.





# LEGOREGGAE 2017

Aparta izan da III. LegoReggae ere. Bertako zein kanpoko artistekin, lepo bete zen aretoa. Zorionak antolatzaileei!

## Presentación del libro 'Urrutiko lur hauek' y homenaje a Patxi Ezkiaga

El pasado 19 de marzo, el pueblo ofreció un humilde pero precioso homenaje al escritor legorretarra e hijo predilecto, Patxi Ezkiaga.

El Ayuntamiento ha publicado su libro 'Urrutiko lur hauek', y después de su presentación dio lugar el homenaje: se procedió a la lectura de un poema, bailes, cantos...

¡Gracias a todos los participantes, colaboradores y espectadores!

Aquí tenéis unas interesantes frases que pronunció Ezkiaga en su discurso:

- "El pensamiento debería bailarse".
- "Nuestra misma existencia es una lectura constante del mundo".
- "¿Hay un agujero negro en el corazón del ser?"
- "A veces hace un frío que cala los huesos".
- "El corazón tiene razones que sobrepasan el raciocinio".
- "La música es el alimento del amor".




Argazkia: Jon Artola

# ERREZETA

Ezkizu taberna - Inma Colomo Mendia

## Euskal pastela



Denbora: 60 minutu

Zailtasuna: Erraza

Plater mota: Postrea



### OSAGAIAK

- 150 gramo gurin
- 200 gramo irin
- 300 gramo azukre
- 3 arrautza
- 2 katilu eta erdi esne

### NOLA PRESTATU:

Lehenengo eta behin, labea 190 gradutan jarri. Osagai guztiak bol batean ondo nahastu. Ondoren, molde batera pasa, eta labera sartu 50 minutuz, 190 gradutan. Behin eginda dagoenean, hozten utzi eta dastatzeko moduan egongo da.

*On egin!*

## MAIATZA

### 12 Eskolaren ikasturte amaierako jaialdia

Arratsaldean / plazan

### 14 Dantzari Txiki Eguna

Goizean herrian zehar, eta eguerdian plazan

### 20 Karate erakustaldia eta zumba festa

Arratsaldean / plazan

### Elekun abesbatzaren kontzertua

Arratsaldean / Herri Antzokian

### 24-28 Azintzio jaiak

## EKAINA

### 2 Musika Eskolaren ikasturte amaierako emanaldia

Arratsaldean / Herri Antzokian eta plazan

### 10 Sagardo eguna eta Erromeria

Arratsaldean, plazan

### 17 Corpus eguna

### 23 San Joan bezpera

Iluntzean / plazan

# AGENDA

## APIRILA

### 7-8 Korrika

17:00 - 05:00 / herrian

### 28 Ipuin kontalaria

18:00 / liburutegian





## 15. Korrikan, 'Heldu!'

Badator Korrika, eta, harekin batera, oroitzapen ugari. Bi urtetik behin zeharkatzen du Korrikak Euskal Herria, eta hala igarotzen da Legorretatik ere. Irudian, 2007. urteko Korrika ageri da, 15.a, hain zuzen, Heldu leloarekin egin zena. Guadalupe auzoan aurrera doaz korrikalariak, heldu, heldu... Aurten, apirilaren 8an pasatuko da Legorretatik, goizaldeko laurak aldera, eta bezperan izango da zerekin gozatua herrian: Korrika txikia, dokumentala, afaria, karaokea...

Korrika Batzordearen izenean, eskerrik asko lagundu duzuen guztioi, ekintzak antolatuz, ekonomikoki zuen aletxo jarritz... Tipi-tapa, tipi-tapa, ko-rri-ka!